

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak departamentuetako hizkuntza-planak jarriko ditu martxan

Onartu den lehenengo planak hiru urteko indarraldia du eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari dagokio

Asteazkena, 2019.eko otsailak 13

Nafarroako Gobernuak departamentuak 2019-2021 aldirako Hizkuntza Planak onartzeko lanean ari dira, 103/2017 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz (103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan). Prozesu horretan, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak jada onartu du [berea](#), eta gainerako departamentuek gauza bera egingo dute datozen asteetan.

2017ko azaroan [onartu zen](#) dekretu hori, herritarrek Administrazioaren aurrean euskaraz aritzeko onartuta duten eskubideari erantzuteko, Euskarari buruzko Foru Legean onartzen den moduan, eta hori Nafarroako eskualdekatze eta errealitate soziolinguistikoan ezarritako mailaketa kontuan hartuz egiteko.

Planen hasieran, departamentuaren egitura eta legezko esparrua deskribatzen dira, eta datu demografiko eta soziolinguistikoak ematen. Gero, abiapuntuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten da (zenbat plazatan den beharrezkoa euskaraz jakitea), langileek euskaraz jakitearen inguruko datuak biltzen dira, eta departamentuko jakinarazpen eta errekurtsoen egoera aztertzen da. Departamentu bakoitzean herritarrak euskaraz artatzeko lehentasuna duten unitate organikoak identifikatzen dira: informazio-puntuak eta erregistroa, eremu euskaldunean ezarritako zerbitzuak, zonalde batean baino gehiagotan arreta ematen duten zerbitzu nagusiak eta zerbitzu ohikoak.

Aldi horretan bete beharreko helburuak ere ezartzen dira; besteak beste, derrigortasuna zehaztea, langileak euskaraz trebatzea, herritarrak euskaraz artatzeko neurriak hartzea, idatzizko informazioa bi hizkuntzetan egotea, hizkuntza-paisaia zehaztea (errotuluak eta elementu fisikoak), eta lizitatutako zerbitzuek arreta emateko irizpideak finkatzea.

Plana garatzeko antolaketa-egitura jasotzen da; hain zuzen ere, departamentuko lantalde bat, departamentu arteko batzorde bat eta Euskarabideako Gobernu Kontseilua izango dira koordinazio- eta garapen-erakundeak. Azkenik, hizkuntza-plana ebaluatzeko eta haren segimendua egiteko mekanismoak ezartzen dira.

Ostiralean, unitateetako bakoitzean hizkuntza-eskakizuna izan beharko duten plazak betetzeko irizpideen proposamena aurkeztuko zaio mahai sindikalari, dekretu horretan jasotakoaren arabera. Irizpide horiek

Gobernu osoari aplikatuko zaizkio.